

Azpeitian zer?

Udal aldizkaria

**Isiltasuna
hausten
hasteko urtea**



Telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Kirolak	943 15 00 95
Hezkuntza	943 25 50 06
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Gaztelekua	943 15 71 61
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Udal Euskaltegia	943 81 19 47

Haurren eta nerabeen kontrako sexu
indarkeriak salatzeako telefonoa:
688 758 299



Ale honetan zer?

Ekintza plana gauzatzen	3
Isiltasuna hausten.....	4
Urriaren 4a, gorde beharreko data	7

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu
Azpeitian Zer? aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria
943 15 71 85 (Alkatetza) telefonon.

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala · Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Azpeitiko Udala · Diseinua: Sorland
Maketazioa: Sorland
Ale kopurua: 7.000 · L.G: SS - 1148/91

Herritarren Arreta Zerbitzua



Azpeitiko Udaleko lehen solairuan aurkitzen da Herritarren Arreta Zerbitzua. Dokumentuak erregistratu, errolda agiriak atera, eskaera orokorrak eta lizentzia eskaerak aurkeztu edo kontsultak egin ditzakezu bertan. Udako ordutegian, irailaren 1era arte, astelehenetik ostiralera, 07:30etik 14:30era egoten da zabalik.

Ekintza plana gauzatzen




Eihera kooperatibaren laguntzarekin, iazko ekainean onartu zituen Azpeitiko Udalak LGTBIQ+ errealitateen diagnostikoa eta ekintza plana. "Diagnostikoak ez du ezertarako balioko baldin eta gero ez baditugu pautak batzuk jartzen ikusitako horiek konpontzeko. Horregatik, oso garrantzitsua da diagnostikoarekin batera osatutako ekintza plana ere", esan zuen iazko aurkezpen hartan Nagore Alkorta alkateak.

Lehentasun batzuk finkatu zituen udalak, eta hainbat urrats egin ditu hilabeteotan, batik bat arlo hauetan: LGTBIfobiaren aurka egiteko, memorian sakontzeko, sentsibilizazioa eta ahalduntzea indartzeko, hezkuntzan eragiteko eta espazio publikoan eta aisialdian presentzia areagotzeko. Horren adibide dira, besteak beste, sortu berri den LGTBIQ+ pertsonentzako eta haien ingurukoentzako aholkularitza zerbitzua, jaietan egindako kanpainak, Astindu Armayuek festa eta Jose Artetxe eta Sanjuandegi lotzen dituen lurpeko pasabidean margotutako murala.

Ekintza planean jasotakoari jarraituz, arlo horietan eta beste batzuetan lanean jarraitzeko konpromisoari eusten dio udalak, eta ilusioz ari da udazkenean izango dira LGTBIQ+ jardunaldiak prestatzen ere.

**Lehentasun batzuk
finkatu ditu udalak, eta
hainbat urrats egin ditu
hilabeteotan**



Isiltasuna hausten

Urtebete da Azpeitiko Udalak, Eihera kooperatibako kideen laguntzarekin, herriko LGTBIQ+ errealitateen diagnostikoa eta ekintza plana onartu zituenetik. Hainbat kontu jarri zituen mahai gainean diagnostiko hark, besteak beste, LGTBIQ+ pertsonen isiltasun handia eta bakardade sentsazioa bizi izan dituztela duela gutxi arte.

Diagnostikoa osatzeko, hogei norbanakoren lekukotzak jaso ziren, baita herriko eragile, elkarte, teknikari zein arduradun politikoen hitzak ere. *Oihu bat isiltasunean* izeneko liburuxkan jaso eta argiratu ziren ondorio nagusiak; horrez gain, ekintza plan bat ere diseinatu zen, etorkizunera begira udalak hartu beharreko neurriekin.

“Ekintza plana onartu zenean, bost arlo nagusitan jarduteko konpromisoa hartu zuen udalak: LGTBIfobia, memoria, espazio publikoa, ahalduntzea eta sentsibilizazioa eta hezkuntza izan ziren lehenetsi genituen arloak”, azaldu du Miren Arrieta Parekidetasun batzordeburuak. Hartutako konpromisoak betetzeko, hainbat programa, ekintza eta zerbitzu jarri ditu martxan udalak azken urtebetean.

LGTBIFOBIA

Beren genero identitateagatik edo orientazioagatik lagunartean, aisaldian, kirol taldeetan, eskolan, herrian eta abar sentitu dituzten hainbat ondoreen berri eman dute LGTBQ+ kolektiboko kideek. “Ondorez horiei lekua egin, eta herri mailan erreparazio kolektibo eta indibidualean sakontzeko konpromisoa hartu du bere gain udalak”, esan du Arrietak.

Horretarako, ondorez egoeraren bat sentitzen duten edo bizi izan duten LGTBQ+ pertsonen bidelaguntza eskaini nahi zaie, ikuspegi feministatik eta gaian adituak diren psikologo profesionalen bidez. LGTBQ+ pertsonen familiek edo haiekin lanean ari diren profesionalak ere badute aholkularitza espezializatu hori jasotzeko aukera. Emakumeen Txokoan eskaintzen da, doan. Hitzordua hartzeko, 688751000 telefono zenbakira deitu behar da.

ESPazio PUBLIKOA ETA AISIALDIA

“Inoiz ez da egin ezer kalean, ez kalejira bat, ez festarik, poteorik... Isiltasun handia dago”, zioen diagnostikoan ageri zen lekukotzetako batek. Ikusgarritasun txikia izan dute LGTBQ+ pertsonak kalean, jaietan, taberna eta gau giroan, eta, oro har, espazio publikoan. “Mugarri bat izan da aurtengo karnabaletan, Elegante Egunean, Astindu Armayuek festa antolatu izana”, dio Arrietak. Azpeitiko LGTBQ+ Asanbladak antolatu zuen udalarekin elkarlanean, eta balorazio oso ona izan zuen.

LGTBQ+ kolektiboaren ikusgarritasuna handitzea izan da Jose Artetxe kalea eta Sanjuandegi lotzen dituen lurpeko pasabidean egindako muralaren helburua ere. Udane Juaristi artistak margotu du,



eta LGTBQ+ Asanbladako kideek ere hartu zuten parte sormen prozesuan.

AHALDUNTZEA ETA SENTSIBILIZAZIOA

Ekainaren 28an izaten da LGTBQ+ Komunitatearen Nazioarteko Eguna, eta maiatzaren 17an LGTBQ+ fobiaren aurkako Nazioarteko Eguna. Egun seinlatu horietan adierazpenak ateratzeaz gain, jaietan ere ahalegin berezia egin du udalak sentsibilizazioaren arloan, *Danona da festie, danona da ardurie* kanpainaren bidez.

Aholkularitza zerbitzu berri bat jarri da martxan, gaian adituak diren psikologoekin

Emakumeen Txokoa ere saiatu da LGTBIQ+ pertsonak elkartzeko eta saretzeko programazioa osatzen. Nabarmentzekoa da Azpeitiko LGTBIQ+ Asanblada sortu izana ere. Diagnostikoa osatu ostean, iazko irailean hasi ziren biltzen Emakumeen Txokoa hainbat herritar, eta modu autonomoan funtzionatzen du. "Azpeitiko LGTBIQ+ Asanblada sortu izana bera ere oso pozgarria da guretzat. Espero dugu asanbladaren eta udalaren artean elkarlan bat egotea aurrerarentzean ere", dio Arrietak.

HEZKUNTZA

Ikastetxeetako ordezkariak, udal ordezkariak, udaleko hainbat sailletako teknikariak, Emakumeen Txokoko kideak eta abar parte hartzen dute Hezkidetza Foroan. Aurten, foroan, besteak beste, LGTBIQ+ errealitateak izan dituzte hizpide. Horretarako, asanbladako kideak gonbidatu dira haien esperientziak partekatzeko, bereziki, eskola garaiko beren lekukotzak eta bizipenak partekatzeko.

MEMORIA

LGTBIQ+ errealitateen diagnostikoko ondorioak txosten tekniko batean jasotzeaz gain, *Oihu bat isiltasunean* liburuxka ere argitaratu zuen udalak iaz, modu dibulгатiboan. Asko eta asko izan dira ale bat nahi zutenak, eta liburuaren hirugarren edizioa inprimatu da dagoeneko.

Memorian sakontzeko, beste ekitaldi garrantzitsu bat ere ari da prestatzen: LGTBIQ+ memoria eta erreparazio jardunaldiak. Jardunaldi horien bidez, honako helburua hauek lortu nahi dira: minak aitortu eta osatzea, gozamenerako espazioak sortzea eta LGTBIQ+ politika publiko eraginkorrak egin ahal izateko esperientzia trukea egitea. Jardunaldiak urriaren 4an izango dira.



Oihu bat
isiltasunean



Urriaren 4a, gorde beharreko data

laz adostutako ekintza plana gauzatzen jarraituz, memorian eta erreparazioan eragin nahi duen ekitaldi bat antolatuko du Azpeitiko Udalak, Eihera kooperatibarekin lankidetzan: Azpeitiko LGTBIQ+ memoria eta erreparazio jardunaldiak. Urriaren 4an izango dira, eta *Kontuan hartzeko kontatuak* izango dute izenburu.

Jardunaldien helburuetako bat izango da esperientziak trukatzea. Euskal Herriko beste zenbait udal eta erakundetan ere ari dira LGTBIQ+ politikak sortzen, eta jardunaldiak baliatu nahi dira Azpeitirako aberasgarriak izan daitezkeen esperientziei buruz hausnartzeko.

EGUN OSOKO EGITARAUA

Egitarau osoaren berri irailaren hasieran emango du udalak, eta izen emateak ere orduan zabalduko dira, baina dagoeneko iragarri ditu zenbait jarduera.

Hiru ardatz nagusi izango dituzte jardunaldiek. Goizean, memoria landuko dute. *Zeri egin diogu oihu? Memoria, artxiboa eta ahotsak* izenburupean, LGTBIQ+ errealitateen ahotsak entzun eta bizipen horien memoria jaso eta azaltzearen garrantziaz arituko dira. Besteak beste, Errenteriako #Kuirartxibobizia (Errenteriako LGTBIQ+ memoria jasotzen duen ikerketa) osatu duten kideek hartuko dute parte, baita Antropologia Feminista Ikerketa Taldeko (AFIT) Miren Guillo eta Laura Muerlasek ere, *Gau bat Albokan: Adiskidetasun, memoria eta sexu disidentzia* hamarkadak hitzaldiarekin.

Goizeko saioa amaitu ostean, bazkari herrikoa izango da Azoka Plazan, sareak eraiki eta elkar ezagutzeko.



BARTZELONAKO ORDEZKARIAK ERE BAI

Arratsaldean, askotariko erreparazio bide eta esperientziak ezagutzeko aukera izango da, *Isiltasuna hautsi ostean, zer?* izenburua izango duen zatian. Azpeitian izango da Miriam Sola, Centre LGTBI BCNko kidea. LGTBIQ+ gaietan erreferentziazkoa da Bartzelonako zentro hori. Azpeitiko LGTBIQ+ Asanbladak ere parte hartuko du arratsaldean, Astindu armayuek ekimenaren inguruko hainbat zertzelada emanez.

Horretaz guztiaz gain, gauean, gozamenerako tarte izango da, Aner Peritzen eta Maider Arregiren bertsoekin, Maruxak taldearen *Folklore travesti* ikuskizunarekin eta DJ Bad Sound Sister-en saioarekin. Alots Arregik egin du jardunaldiak iragartzeko kartela.



Energia Bulegoa

943 11 98 06

energia@azpeitia.eus

Ordutegia:

Astelehen, astearte, asteazken
eta ostiraletan, 10:00etatik
14:30era. Ostegunetan,
17:00etatik 19:30era.

www.azpeitia.eus